

EKAINA 2020

**B1.** Osatu erreakzio organiko hauek, eta esan zer motatakoak diren. Erreakzio bakoitzean parte hartzen duten erreaktibo eta produktu guztiak formulatu eta izendatu.

- a)  $\text{CH}_2=\text{CH}_2 + \text{Br}_2 \longrightarrow$  (0,50)
- b)  $\text{CH}_3-\overset{\text{Cl}}{\text{CH}}-\text{CH}_3 \xrightarrow{\text{NaOH } \Delta}$  (0,50)
- c)  $\text{CH}_3-\overset{\text{OH}}{\text{CH}}-\text{CH}_3 \xrightarrow[\text{H}_2\text{SO}_4, \text{H}_2\text{O}]{\text{CrO}_3}$  (0,50)
- d)  $\text{CH}_3-\text{CO}_2\text{H} + \text{HO}-\text{CH}_2\text{CH}_2\text{CH}_3 \xrightarrow{\text{H}_2\text{SO}_4 \text{ (katal.)}}$  (0,50)

**C4.** Adierazi zer isomeria mota dagoen konposatu bikote hauetako bakoitzean.

- a) Pentanala eta pentan-2-ona. (0,50)
- b) Pentan-2-ona eta pentan-3-ona. (0,50)
- c) Azido butanoikoa eta azido metilpropanoikoa. (0,50)

UZTAILA 2020

**B2.** Esan ea esaldi hauek zuzenak ala okerrak diren, eta arrazoitu erantzuna kasu bakoitzean. Okerrak direnean, izendatu eta formulatu erreakzioaren emaitza zuzena.

- a) Propenoari HCl-a eransten zaionean, 1-kloropropanoa sortzen da. (0,50)
- b) Etanola  $\text{KMnO}_4$ -arekin bortizki oxidatzen denean, azido etanoikoa sortzen da. (0,50)
- c) 2-Propanola  $\text{H}_2\text{SO}_4$ -arekin deshidratatzen denean, propinoa sortzen da. (0,50)
- d) Azido etanoikoa eta 1-propanola kondentsatzen direnean, etil propanoatoa (0,50) sortzen da.

**C2.** Izendatu eta marraztu konposatu hauen formula erdigaratuak:

- a)  $\text{C}_3\text{H}_6\text{O}_2$  formula molekularreko hiru isomero. (0,75)
- b)  $\text{C}_4\text{H}_{10}\text{O}$  formula molekularreko lau alkohol. (0,75)

